

Gaia: 02/2024

**ESKOLA-KIROLAREN ESPARRUAN IKUSKARITZA-LANA EZ BETETZEAGATIK AURKEZTUTAKO
KEXA BATI BURUZKO EBAZPENEA**

I.- KONTSULTA

1.- 2024ko urtarrilaren 31n, kexa bat jaso zen kanal anonimoaren bidez, Kirol Eskolaren araua aplikatzean foru Aldundiko langileek izandako ekintzarik ezari buruz. Haren ustez, arau horrek haurren eskubideen ekitaterik eza dakar.

Adierazi denez, kirol desberdinetako klub batzuek ez dute araudia betetzen, eta baimendutakoa baino gehiagotan entrenatzen dute, edo horretarako adinik ez duten haurrek parte hartzeko aukera ematen dute, adibidez. Egoera horren aurrean, foru-teknikarien geldikeria salatzen du, nahiz eta egoeraren berri izan, interes ezezagunak edo laguntasuna argudiatuz, eta prebarikazioa leporatuz.

Aitortu du bere salaketan aipatutako klub batzuk eta beste batzuk aurrez zigortu dituztela praktika deszintzo horiengatik, eta, hain zuzen ere, praktikatzen jarraitzen dutelako salatzen duela jarduera ezak; eta ez duela frogarik aurkezten, bere ustez foru-teknikariek bildu behar dituztelako eta, izanez gero, erabili.

II.- APLIKATU BEHARREKO ARAUAK

1.- Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko Erabakiaren bidez onetsi zen Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko Erakundearen Zuzentasun Sistema (aurrerantzean, EZS), zeinaren bidez etika publikoa eta eredugarritasuna ezaugarri gisa finkatu nahi baitira.

Sistema horren esparruan, zenbait jokabide kode onartu ziren: Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien kodea (KPJK); Diputatuen Kontseiluaren 2017ko irailaren 5eko erabakiaren bidez, kontratazio publikoari aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (KJK);

Diputatuen Kontseiluaren 2017ko azaroaren 7ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako foru Enplegu publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea (EPJK); Diputatuen Kontseiluaren 2018ko urriaren 2ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren laguntzei eta diru laguntzei aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (DLJK); 13/2022 Foru Dekretuaren bidez, 2022ko irailaren 13koak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoarekin elkarrengaitan duten Interes Taldeei aplikatu beharreko Jokabide Kodea (ITJK); eta Diputatuen Kontseiluaren 2023ko urtarrilaren 10ko erabakiaren bidez Datuak eta Adimen Artifiziala erabiltzeko kode etikoa (DAAK) .

2.- Bai EZSk bai jokabide kodeek hau ezartzen dute: Erakundearen Etika Batzordea (EEB) izango dela berme handieneko organoa eta hura aplikatzeko gaien berri izango duena. Batzorde horren antolaketa, prozedura eta funtzionamendua maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretuan arautzen dira, eta Batzordearen ardura izango da Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzeko tresnetan ezarritako balioak, printzipioak eta jokabide arauak ez betetzeari buruz jasotako kexak eta salaketak izapidetzea eta ebaztea.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALORAZIOA

1- Gai honetan, eskola-kirolaren araua betetzen dela bermatzeko ikuskapenen ardura duten foru-teknikarien ekintza eza salatzen da.

Kexa hirugarren baten gainekoa denez, maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretuak, gaiak izapidetu, ebatzi eta jakinarazteari buruzkoak, 9. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki, otsailaren 5ean Kirol Zerbitzuaren arduradunei helarazi zitzaizkien jasotako kexa, informazio emateko eta egoki irizitako gogoetak adierazi eta argudiatzeko eskubidea bermatzeko. Ildo horretatik, Kirol Zerbitzuak (aurrerantzean, Zerbitzua) idazki bat bidali zuen otsailaren 12an bere oharpenekin.

2.- Salatzaileak aurkeztutako idazkian adierazten denez, urteak dira kirol ezberdinetan praktika deszintzoak egiten direla eta, paradigma gisa, (...) eta (...) klubak jarduerak salatzen dira, astean baimendutako entrenamenduak baino gehiago egiten dituztelako, entrenamenduak ezkututzen dituztelako, arauak saihesteko edo lurraldetik kanpo jokatzeko nomenklatura desberdinak erabiltzen dituztelako eta goragoko kategorietan jokalaritxiagoak erabiltzen dituztelako; edo (...) klubaren kasua, klubean onartzen dutelako eta behar adina ez duten haurrak entrenatzeko aukera ematen dutelako. Bere ustez, kirol batzuek eta haien klubek eskola-kirolaren araudia hausten dutenez, kirol desberdinak egiten dituzten haurren eskubideak ez dira berdinak, eta araudia betetzen dutenek desabantailak izaten dituzte.

Testuinguru horretan, salatzailea kexu da foru Aldundiko teknikari arduradunen ekintzarik ezaz, haien ustez, egoera horren jakitun izanik, ikuskapenak behar bezala egiten ez dituztelako, eta egoera hori ahalbidetzen dutelako. Hori dela eta, beren interesen edo adiskidetasunaren ondoriozko prebarikazioa leporatu die.

Amaitzeko, adierazi du aipatutako klubei eta beste batzuei zigorra ezarri zaiela iraganean, baina, hala eta guztiz ere, desobedientzia-ekintzak egiten jarraitzen dutela, eta, bere ustez, foru Aldundia ekintza horiek baimentzen ari da ikuskapen faltagatik. Eta adierazi du ez duela inolako frogarik aurkeztu, uste baitu, hain zuzen ere, foru-langileen lana dela horiek eskuratzea, hain zuzen ere, ebidentziak biltzeko eta erabiltzeko ordaintzen direla, baina, hala ere, ez diotela kasurik egiten arauak ematen duenari, ez baitute beren lana behar bezala egiten.

3.- Kirol Zerbitzuak txosten bat bidali zion EEB honi, eta, bertan, eskola-kirola erregulatzen duen araudia, arlo horretako ikuskaritza-lanen gaineko eskumenak, Zerbitzuaren ikuskaritza-eginkizunen prozedura eta azken urteetan salaketaren esparruan egindako jarduerak jasotzen ziren.

Lehenik eta behin, Gipuzkoako eskola-kirolaren testuingurua zehazten da, eta, bertan, aplikatu beharreko araudia adierazten da; araudi horrek eskola-kirolaren arloko eskumena ematen dio foru Aldundiari, eta adierazten dagokien foru-organo horiek hartuko dituztela beren gain ikuskaritza-eginkizunak, arlo horretako lege- eta erregelamendu-xedapenak betetzen direla kontrolatzeko.

Zerbitzuak adierazi duenez, kirol-arloko eta hezkuntza-arloko pertsona eta erakundeetatik informazioa eta salaketak jasotzen dituzte aldizka, indarrean dagoen araudiaren arau-haustetat har daitezkeen jardueri buruz, eta foru Aldundiak, arlo horretan dituen eskumenak baliatuz, ikuskatzeak egitea beharrezkoa den erabakitzen du.

Ezarrita duten prozeduraren arabera, lehenik eta behin, foru-agindu bat ematen da urtero, ikuskatze-lana egingo duten funtzionarioak izendatzeko; ondoren, Gipuzkoako kirol-agenteei jakinarazten zaie abian jarriko dela ikasturteko eskola-kiroleko jarduerak ikuskatzeko plana; eta, azkenik, ikuskapenak egiten dira, kasu batzuetan aipatutako informazioak edo salaketak jaso ondoren. Ikuskapen-aktan, egiaztatutako egitateak eta lortutako informazioak jasotzen dira, balio-judizioak saihestuz, gertakariak eta lortutako datuak zehaztuz, bai eta horiek jasota uzteko erabilitako bitartekoak ere (argazkiak, bideoak, testigantzak, adierazpenak). Informazio horrekin guztiarekin eta txosten teknikoarekin, dagokion espedienteak egiten da, eta Departamentuko Idazkaritza Teknikora bidaltzen da, izapidetu dezan. Bertan amaitzen da Zerbitzuko teknikarien lana.

Hain zuzen ere, arau-hauste ohikoenak honako hauek izaten direla adierazten da: baimendutakoa baino adin txikiagoko ikasleek klubeko eskolan parte hartzea, baimendutakoa baino asteko entrenamendu gehiago egitea, baimenik gabeko partidak jokatzea, ikastetxeko taldean parte hartzen ez duten haurrek klubeko eskoletan parte hartzea, onartutako egutegiez bestelako egunetan egindako jarduerak edo dagokion administrazio-baimenik gabe funtzionamenduan dauden kirol-eskolak.

Adibide gisa, azken urteetan eskola-kirolaren araudia ez betetzeagatik zehapen-espeditentea irekitzeko proposamenak jasotzen dituen taula bat erantsi da. Bertan ikus daitekeenez, gehienek futboleko eta saskibaloiko kirolei eragiten diete, eta azken 6 urteetan 2023an egin ziren espeditente-proposamen gehien (guztira 23).

Salaketan aipatutako (...) K.E eta (...) K.E klubei dagokienez, azken urteotan zehapen-espeditentea irekitzeko hainbat proposamen izan dituzte:

Kluba	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
(...) K.E	1	2	1	0	0	1	0
(...) K.E.	0	1	0	0	3	1	0

Gainera, 2022ko azaroaren 14ko txosten tekniko baten berri ematen da, non aipatutako klubetako bat tartean sartzen den. Adierazi denez, horren ondorioz, Sailak kontsulta egin zion kirol-legerian aditua den aholkulari bati, inplikaturako klub baten baterako jarduketetan legerizurra egin ote zen jakiteko, eta hark hainbat irizpide eman zizkien egoerari aurre egiteko, bai eta klubek beloa kendu izanaren zantzuak antzemanaz gero eman beharreko urratsak ere. Azterketa horren ondorioz, zerbitzuburuak txosten bat egin zuen klubari espeditentea irekitzeko proposamenarekin.

Gainera, Zerbitzuko teknikarien azken urteetako ikuskapenei buruzko beste txosten batzuen laburpenak aurkeztu dira, eta horrek, Zerbitzuaren ustez, agerian uzten du Zerbitzuak ez duela ezer egin (nahiz eta langile gutxi egon, eta horrek zaildu egiten du lana), eta oraindik ere ikertzen ari direla futbol-klub baten egituren artean egon daitezkeen loturak.

Azkenik, adierazten da Kirol Zuzendaritzak eskola-kirolaren esparrua hobetzeko lanean jarraitzen duela, eta horren frogara da 2022an berriro ekin zitzaizola covid-19aren agerpenagatik etendako jarduerari, ordura arte sartu ez ziren gainerako kirol-modalitateen irakaskuntzak

arautzeko, txirrindularitza, izotz-hockeya, squasha, scooterra eta piraguismoa barne barneratu zirelarik; 2023-24 ikasturtean, boleibola eta hockeya; eta 2024rako 4 modalitate gehiago sartzeko helburua dagoela.

4.- Salaketan berariaz aipatzen ez bada ere EZS urratu daitekeela, gai honetan zalantzan jartzen dira bertan jasota dauden eta gai honetan inplikaturik dauden pertsonen aplikazioak dakizkiekeen balio batzuk. Hori dela eta, EEB honek aztertu egiten ditu.

Lehenik eta behin, oraintsuko 08/2023 Ebazpenean agerian utzi genuen zerbait gogoratu behar dugu: baieztapenak edo akusazioak egitea inolako frogarik edo ebidentziarik gabe EEB honek gaia ez aztertzea ekar dezake, EEB honen funtzionamendua arautzen duen Foru Dekretuaren 6.5 artikulua adierazten duelako ez direla onartuko salaketa faltsuak, interesatuak edo funsgabeak, eta EEB honi ahalmena ematen dio horiek ebazteko edo ez ebazteko. Hala ere, Zerbitzuko teknikarien aurka egindako akusazioen larritasuna dela eta, prebentzioaz ere hitz egitera iritsiz, azterlanari ekingo diogu, lehenago esan gabe gauza bat Klubek araua ez dutela betetzen erakusten duten ebidentziak direla, eta foru Aldundiaren zeregina dela (eta ez herritarrena, jakina) salaketei erantzutea, ebidentziak ikuskatzea eta biltzea; eta beste bat oso desberdina dela enplegatu publiko bati prebentzioa leporatzea, horren frogarik aurkeztu gabe; izan ere, oro har, egitateak baieztatzen dituenari dagokio frogaren zama, eta gai honetan ez da inolako ebidentziarik ematen egiten diren baieztapenen inguruan.

Hala eta guztiz ere, lehen esan bezala, EEB honek bere iritzia emango du.

Aztergai dugun gaian, foru Aldundiaren arloan eskumena duten langileek ekintzarik egin ez izana salatzen da nagusiki, hau da, utzikeria beren funtzio publikoak betetzean.

EZSk eta hura osatzen duten kode etikoen arreta berezia jartzen dute enplegatu publikoek hainbat esparru eta jardueratan betetzen dituzten eginkizunetan, nola jokatu behar duten etikoki ukiezina den jarrera eta ariketa bermatu ahal izateko; izan ere, beste batzuetan esan dugun bezala, foru enplegu publikoaren zerbitzurako bokazioa eta konpromiso profesionala bistaratu behar dira, erakundea legitimatuko duen eta herritarrek harengan duten konfiantza indartuko duen azpiegitura etikoko sistema bat finkatuz. Azken finean, enplegatu publikoen jardura azken helburu nagusia herritarrei zerbitzua ematea duen lanbidea da.

Ilido horretan, EPKEek hainbat balio eta printzipio ezartzen ditu, dagozkien jokabide-arauekin batera, eta horiek kontuan hartu behar dira gai hau aztertzerakoan.



Lehenik eta behin, funtsezko balioa, Zuzentasunarena, zerbitzu publikorako eta kudeaketa onerako balio substantibo gisa, funtzio publikoetako edozeinetan konpromisoak eta betebeharrak zorrotz betetzera behartzen duena. Eta jardueren zuzentasuna bermatzeko, honako hau adierazten du, hain zuzen ere:

Zuzentasuna

(...)

b) Euren funtzioak osotasunez burutzen dituztela bermatzeko, foru langile publikoek euren ebazpen proposamenak edo euren txosten edo jarduerak dagozkion datu teknikoen bidez justifikatuko dituzte.

*c) Bereziki, euren funtzioak burutzean eragina izan dezaketen eta euren jarduera profesionalaren osotasunaren gaineko arrazoizko **zalantzak planteatu ditzaketen kanpo eraginak ekidingo dituzte**. Bereziki, pertsona edo erakunde **batzueganako favoritismo susmoa eragin dezaketen jarduerak ekidingo dituzte**.*

(...)

Alde horretatik, Zerbitzuak aurkeztutako txostenak, ikuskapen-prozedura deskribatzeaz gain (ikuskapen-aktan gertakarien, lortutako datuen eta horiek jasota uzteko erabilitako bitartekoen zerrenda zehatza sartzeko beharra jasotzen du), hainbat txostenen laburpenak ere jasotzen ditu, eta, horien arabera, egindako jarduketak eta txostenak datu egokietan eta teknikoetan oinarritu dira, Zerbitzuak berak adierazi bezala, "balio-judizioak saihestuz". Azken horrek, era berean, neutraltasun-izaeraz blaitzen ditu txostenak, eta hori ere eskatzen du EPKEek, ez bakarrik zuzentasunaren balioak kontuan hartzearen ondorioz, baizik eta, bereziki, Inpartzialtasunaren eta Objektibotasunaren baliotik eratorritako jokabideak betez.

Gogora dezagun inpartzialtasuna foru enplegu publikoaren erakundearen arrazoi existentziala dela, eta haren jarduera profesionalak besteren premisetatik urrun egon behar duela, eta, horregatik, jarduera publikoak gauzatzean, interes orokorrek eskatzen duten objektibotasunarekin jokatu behar dela, betiere herritarren zerbitzura. Horretarako, berriz ere, honako hau ezartzen da:

Inpartizaltasuna eta Objektibitatea

(...)

*g) Foru langile publikoen ebazpen **proposamenak eta txostenak egoki arrazoituak** egon beharko dira **eta bakarrik teknikoak diren irizpideak jarraituz** egin, interes publikoa eta erakundearen papera babesteko xedez.*

Salaketa-idazkiak ohartarazten du teknikariek interes partikularrak edo faboritismoak izan ditzaketela, eta hori da, hain zuzen ere, aipatutako jokabide-arauek saihestu nahi dutena, erabakiak irizpide teknikoetan oinarrituta eta behar bezala arrazoituta hartzen direla bermatuz. Eta, lehen esan dugun bezala, Zerbitzuak aurkeztutako laburpenak zehatz-mehatz idatzita egoteak irizpide horiek betetzen dituela dirudi.

Bestalde, profesionaltasunaren printzipioak berriro azpimarratzen du ideia hori:

Ardura profesionala

(...)

*b) Euren funtzioak burutzean, foru langile publikoek ardura profesionalarekin jardungo dute beti, **euren funtzioak eta lanak diligentzia handienarekin betez** eta markatutako helburuak betetzeko beharrezko esfortzua eginez.*

*c) Horrek **esleitutako funtzioen dedikazio berezia** dakar, gai edo administrazio izapide bakoitzak suposatzen dituen interes eta jarrerak baloratuz beti, **proposamen edo txostenak arrazoituz** eta, edozelan ere, funtzio horiek egoki ez betetzeak edo euren jarrerak sortzen dituen ondorioak onartuz.*

(...)

Zerbitzuak aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, badirudi txostenak behatutako balio eta printzipioek eskatzen duten motibazio eta irizpide teknikoarekin egin direla.

Bestalde, azaldutakoagatik, uste dugu ezin dela Departamentuaren ekintzarik ezaz edo ikuskapen-erantzukizunaren utzikieriaz hitz egin; izan ere, urtero bideratzen diren zehapen-espeditenteen kopuruak, baita salaketan zalantzan jarri diren klubena ere, agerian uzten dute beren zereginak itxuraz normaltasunez eta espero den arduraz egiten dituztela. Gainera,

nabarmendu behar da urtero helburu eta jomuga berriak ezartzen eta betetzen direla, bere kudeaketa bermatzen dutenak, eta urtero kirol-modalitate berriak sartzten direla eskola-kirolean. Horrez gain, zehapen-espeditenteak irekitzeko proposamenak egiteaz gain, ahalegin berezia egiten da araudia ez betetzea prebenitzeko, aurretiazko jakinarazpenak eginez eta, ahal denean, akatsak konpontzen saiatuz.

Bi alderdiek azaldutakotik, Zerbitzuak emandako ebidentzietatik eta alderdi salatzaileak ebidentzia horiek falta dituela ikusita, ondorioztatzen dugu ez dagoela elementu nahikorik egiaztatzeko Zerbitzuko teknikariek ez dutela ekintzarik egin ikuskapen-lanean, edo beren interesak dituztela edo laguntasuna gauzatzen dutela eguneroko lanean.

Hori guztia dela eta, Erakundearen Etika Batzordeak erabaki hau hartu du, aho batez, 2024ko otsailaren 20an

EBAZPENA

Bakarra.- Kontuan hartuta Foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodeko artikuluetan zuzentasunaren eta Inpartzialtasun eta Objektibotasun balioei eta Ardura Profesionalaren printzipioari buruz ezarritakoa, uste dugu ez dela ebidentzia nahikorik ikusten baieztatzeko Kirol Zerbitzuak eskola-kirolaren esparruan egindako ikuskapen-lanak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistemari ezarritakoa urratzen duela.

Irene Berasaluze Lazkano
Erakundearen Etika Batzordeko lehendakaria